



Ane Rodríguez Armendariz

Ane Rodríguez Armendariz 2012ko udan Tabakalerako Kultura Zuzendaria izendatua izan zen kultur proiektuaren ezaugarri nagusienak definitzeko eta 2015eko irailean atek ireki zituen Donostiako Tabako fabrika Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan birmoldatuta martxan jartzeko.

Ordutik, zentroko lan-ildo nagusiak garatzen jarraitzen du.

Bere esperientzia profesionalari dagokionez, hainbat kultur erakundeetan lan egin du, besteak beste: Madrilgo Arte Garaikidearen ARCO azokan (non komisariatutako programen eta nazioarteko galerien ardura izan zuen, 2006-2009), MUSAC, Gaztela eta Leongo Arte Garaikidearen Museoan (museoko koordinatzaile orokor modura, 2010) eta Matadero Madrid-en (non 2011 eta 2012 artean programazio taldearen kide izan zen).

Kazetaritzan formatua, Londresko hainbat galerietan lan egin ondoren kudeaketa artistikoan murgildu zen. 2004an bueltatu zen eta Manifesta 5, Donostian izan zen Arte Garaikideko Bienalan lantaldeko parte izan zen. Hainbat urteetan Donostiako Zinemaldian ere kolaboratu zuen.